


Jose Allende Landa

**SALTOKI-GUNE HANDIEN EREDUA ETA MERKATA-
RITZA EREDU TRADIZIONALA AURREZ AURRE:
Gizarte, ekonomia, kultura eta lurralde
ondorioak, jasangarritasunaren ikuspuntutik**



MANU
ROBLES-ARANGIZ
INSTITUTUA



Aurkezpena

Julene Gabiola

Txikizkako merkataritza sendotuz joan da urteetan zehar, gure herri eta hirien, kulturaren, eta bizitzeko eraren parte izateraino. Hala ere, ugariak dira azken urteetan etortzen ari diren saltoki-gune handiak, batez ere hiriburuen inguruan. Hego Euskal Herriko lurralde historiko guztietan ematen den fenomeno dugu berau; Garbera Gipuzkoan, Boulevard-a Araban, Morea Nafarroan, edo eta Megapark-a Bizkaian, adibideetako batzuk baino ez dira. Honela, askotan jatorrira bueltatuko dituzten mozkinak maximizatzea helburu duten era guztietako multinazionaleri ongi-etorria ematen ikusi ditugu gure erakunde publikoak, inolako kritikarik gabe.

Saltoki-gune handiak defendatzen dituztenek, lanpostu sorrera, inbertsioak, kontsumitzaileentzat aukera anitza eta prezio eskurgarriagoak e.a. arrazoitzen dituzte. Hala ere, galdera bat planteatu beharra dago: zein eredutarantz garamatza mega-azpiegitura hauen hedapen honek? Galdera orokor honen atzean, badago ELAtik azpimarratu nahi dugun gai bat, berauen langileen lan baldintzak hain zuzen. Honela, gure herrian saltoki-gune handien presentziak presioa eragiten du, zalantzarik gabe, jai egunetan mer-

katal zentroak zabaltzeko orduan. Kapital handiaren presioei kasu eginez, Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak onartu egin dute joko hau, eta borroka sindikala hastera behartu gaituzte.

Azalera handi hauen eragin kaltegarriak ez dira lan mundura mugatzen, herritarren kontsumo ohitura, gure herri eta hirien aukera aberastasuna, maila handian saltzen diren produktuen kalitatea e.a. bezalako gaiei ere eragiten baitie.

Ingurumena ez da salbuespena saltoki-gune handi hauen hedapenaren ondorioak pairatzerakoan. Ingurumenaren aldetik, besteak beste, ekonomian katedradun eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle Jose Allende Landak, gai hauek eta beste batzuk lantzen ditu txosten honetan, erakunde ofizialen bibliografia zabalean oinarrituz bere hausnarketak egiteko.

Sindikalki borroka (bai bere alde sindikalean eta bai sozialean) eta ekologi borroka elkarrekin joan behar direnaren beste adibide bat da honokoa. Neoliberalismoa da arerioa, eta bien arteko borroka amankomunak hobetu egingo du emaitza.



SARRERA

Merkataritza-ereduak hirian eta lurraldean dituen ezarrera eta kokalekua markatzen ari den norabidea gero eta kritika gehiago sortarazten ari da estamentu sozial, politiko eta akademikoetan 90eko hamarkadaren hasieraz geroztik.

Garapen jasangarriaren gainean egiten den irakurketa berriak funtsezko eginkizuna esleitzen die merkataritzaren banaketa-eredu espazialari eta merkataritza-era berriei, batez ere hirien eta lurraldearen degradazio hazkorra gelditzeari dagokionez, hiri-garapena Jasangarritasunaren ikuspegian oinarriturik berrinterpretatzeko.

Baina merkataritza-ereduak erakusten duen joera, hau da, saltegiak hiri-inguruetan edo hirietatik kilometro gutxitara kokaturiko azalera handietan biltzeko eta, batez ere janariaren sektoreari begira, eskaintza talde transnazional handien eskuetan

metatzeko joera, izaera sektoriala aise gainditzen duten kezkek eta gogoetak pizten ari da.

Txikizkako salmentaren eta lurralde-banaketa-ereduak eragin nabarmena du egoera sozio-ekonomikoan, kulturean eta gizartearen ongizatean, eta ondorio bereziki larriak ditu gure herri, hiri eta inguru naturaletan.

Merkataritza, ingurumena, kultura, gizarte, ekonomia eta lurraldea, guztiak aldi berean eta uztarturik, kontuan hartzen dituen ikusmolde integrala eskatzen du arazoak.

Gure herri eta hirietan txikizkako merkataritzan diharduten denda txiki eta ertainek degradatzeko eta desagertzeko joera kezagarri eta hazkorra erakusten dute, hiri-inguruetan edo hirietatik hurbil eta errepede-lotune garrantzitsuetatik gertu ezartzen diren hipermerkatu handiak, zentro komer-



tzialak, azalera komertzialak, parke komertzialak eta abar ugaritzearen ondorioz.

Garapen jasangarriaren eta, zehazki, hiri jasangarrien paradigma berriaren ikuspuntutik begiratuta, errealitate horrek zalan-tzan jartzen ditu eredu metatuak hiri eta herrien barruko eredu sakabanatu edo barreiatuaren aldean dituen onurak. Berez, Europako leku askotan, giza kokalekuetako merkataritza-eredu tradizionaletara itzultzen ari dira, hiria hiritarrentzat berreskuratzen, hiriak eta hiriko bizimodu aberatsa suspertu, kalea eta leku publikoak gizatiartu, landa-inguruetakoko nekazaritza eta abeltzaintza indarberritu, eta tokian tokiko merkatuak eta eskualdeko eta sasoiko produktu ekologikoak berpiztu, besteak beste.

Orokorrean, multinazionalen eskuetan dauden zentro komertzial handiak diren kontsumismoaren Katedralen esanahiarekiko eta ezartzen diguten bizimoduarekiko gero eta jarrera kritikoa dago, kultura, gizarte, ekonomia, ingurumen eta lurralde arloetan dakartzaten ondorio kezkarrietatik. Zentro komertzial handiak kontsumismo irrazional eta konpulsiboaren tenplu gisa ikusten dira, gero eta hein handiagoan: jasangarritasunaren kontra jotzen duen erosketak gogartugabera bultzatzen gaituzte, eta ondorio larriak dakarzkiete, adibidez, hiri trinko eta multifuntzionalak

ahalbidetzen duen bizimodu aberatsaren suspertzeari.

Ekonomiari eta lanari dagokienez, ondorioak ez dira lasaigarriagoak, eredu horrek lanpostu egonkorak suntsitu eta enpleguaren behin-behinekotasuna areagotzen laguntzen duelako. Tokian tokiko finantza-zirkuitua murriztu egiten du, azalera komertzial handietan multinazionalak duten presentzia nabariagatik: ondorioz, eskualdeko nekazaritza eta abeltzaintza hondatu eta gizarte-, kultura- eta lurralde-ondorio kezkarriak sortzen ditu.

EUROPAKO ERKIDEGOKO ETA EAEko ERREFERENTZIAKO TXOSTENAK

Hiri-inguruetakoko hipermerkatu eta zentro komertzial handietan oinarrituriko merkataritza-eredua ageriko kritikak eta aurkakotasunak pizten ari da bai Europar Batasuneko gizarteko gero eta sektore handiagoetan, bai Europako Erkidegotik sustatzen diren politiken ondorioz prestatu diren txosten eta dokumentuetan.

Europako Batzordeko XVI. Zuzendaritza Nagusiaren 1997ko **“Hirien Europa. Erki-degoaren jarduketak Hiri Ingurunean”** izenburuko txostena oso argigarria da:



“Azken hamarkadetan, hiriko merkataritzak aldaketa sakonak jasan ditu, baina ez da ezer egin joera kaltegarri batzuk galgatzeko; esaterako, denda txikiak saltegi eta supermerkatu handien lehiaren eraginez desagertzeko joera gerarazteko. Alderdi horrek, berak bakarrik, oso ondorio kaltegarriak ditu hirientzat: hurbileko dendak desagertzea; enplegu subsidiarioak galtzea; auzo batzuen desertifikazio ekonomikoa; hirien kanpoaldean kokatutako zentro komertzialetara heltzeko, autoz egin behar diren desplazamendu luzeak...”

Dokumentu horretan, gizartean eta kulturaren eragin nabaria izango duen jarrera kezagarri bat aipatzen du, janariaren salerosketarekin loturik:

“Hiri askotan ikus daitekeen beste fenomeno bat janari-denden desagertzea da. Horren eraginez, alokairuen prezioa igo eta diru-sarrera gutxien dituzten biztanleek alde egin behar izaten dute hirien erdialdetik inguruetatik auzo erdeinatuetara, horiek ere hurbileko zerbitzurik gabekoak.”

Dagoeneko, Europar Batasuna hiri-inguruetatik zentro komertzial handi horiek ugaritzeko joerarekiko jarrera kritikoa agertzen hasia zen.

Hiriguneetako merkataritza-eredutik hiri-inguruetatik azalera handietako zentralizazioerako joerak Europako Batzordean ere piztu du alarma, **“Europar Batasunarentzako Hiri Politikarantz”** izenburuko txostenak (Brusela, 1997.05.06; COM (97) 197 amaiera) erakusten duenez. Txosten edo Jakinarazpen horretan, honako hau adierazten da, berariaz:

“Behar-beharrezkoa da hirigintza-politikan aldaketak burutzea, jasagarritasun, nahaste eta aniztasun handiagoa lortzeko, eta hiri, berriro ere, eguneko ordu guztietan, mota guztietako jardueretarako topaleku bizia izan dadin” (1.4 ep.).

Horretarako, hauxe proposatzen du dokumentuak:

“hiri eta auzoen funtzio komertziala indartzea”, Batzordeak 1996an Merkataritzari buruzko Liburu Berdean eman zituen aholkuekin bat.

Hiri eta auzoen funtzio komertziala indartzeko, honako proposamen hauek egiten ditu dokumentuak, inguruetatik azalera komertzial handiekin kontrajarririk:

“Hirien garapena eta bertako bizi-kalitate handiagoa ahalbidetzeko politikak sustatu behar dira... Hiri-garraioari buruzko politika guztiek ere automobil

*privatuen erabilera saihesteko alternati-
bak bultzatu behar dituzte”.*

Europako Batzordeak 1990ean Hiriko Ingurumenari buruz argitaratutako Liburu Berdearen ildotik, Europako Hirien Jasangarritasunaren Aldeko Gutunak ere (Aalborgeko Gutuna. Hiri Jasangarriei buruzko Europako Konferentzia; Danimarka, 1994ko maiatzaren 27a) hirien barruan distantzia handiak egin beharra murrizteko eta erabileren aniztasuna sustatzeko premia azpimarratzen du:

“mugikortasuna murrizteko, hirigintza-politiken bidez hainbat funtzio elkartzen saiatzea”

Udal aitzindariak XXI. mendearen atarian (2000n) argitaratutako **Hannoverreko Deklarazioak** ere norabide berean jotzen du:

“gure erkidegoan ‘aztarna ekologikoa’ murrizten duten toki-politikak lortu nahi ditugu. Bat egiten dugu hirigintza integratuarekin eta hiri trinkoaren garapenarekin”

Era berean, 1998an, Ekonomia eta Gizarte Batzordeak Europako Batzordearen **“Europar Batasunarentzako Hiri Politikan-
rantz”** izenburuko Jakinarazpenari (EEAO, 98.03.30 (98/C95/19)) buruz emandako irizpenak ere hiri-inguruetako azalera komertzial eta hipermerkatu handiak ugaritzea-

ren mehatxupean dauden herri eta hirieta-
ko merkataritza txikia babestu eta indartu
beharra azpimarratzen du:

*“Populazioa sendotzearen zioz sortu-
tako gizarte-bilbea, artisauen mikropro-
dukzio-jarduerak eta merkataritza txikia
babestu egin behar dira, tokiko komuni-
tatearen oroimen historikoa, gizartea
eta kultura errespetatuz”.*

Bestalde, Europako Batzordeak Europar Batasunaren Aldizkariaren 2/97 Eranskinean argitaratutako **Merkataritzari buruzko Liburu Berdea** deritzonak ere argi uzten du Europako Erkidegoak merkataritza txikia nahiago duela, merkatal azalera handiak baino. Hauxe dio Merkataritzari buruzko Liburu Berdeak, 16. epigrafean:

*“Merkataritzak komunitatearen bizi-
modu orekatuari eusteko zereginean
duen garrantzia gero eta onetsiago
dago, berdin hirien erdialdeko dendak
nahiz auzoetakoak izan, eta hirietakoak
nahiz landa-inguruetakoak izan... Den-
da handiek zein txikiek bizitasuna ema-
ten diete hirien erdialdeei, eta gerarazi
egiten dute hirien desertifikaziorantzko
joera hazkorra, hirietako delinkuentzia-
ren eragileetako bat, hain zuzen ere”.*

Agiri horrek hirietako denda txikien alde-
ko apustu irmoa egiten du, hiri-inguruetako



azalera komertzial handien aldean. Ikus dezagun:

“Merkataritzak hainbat eginkizun ditu: tokiko komunitateari bizitasuna emateko eta gizarte-harremanak sortzeko zeregina, neurri handi batean, inguru hurbileko dendei dagokie, horiek, askotan, jendea elkartzeko leku bakarra baitira; beraz, merkataritzak gizarte-eginkizun ordeztetzina betetzen du”. (20. or.).

Aitzitik, saltegiak pilatzeko joeraren aurka azaltzen da, honako hau baieztatzean:

“Banaketa-era berriek hiri-lurzoruaren erabilera aldarazi, eta hirien kanpoaldean kokatutako zentro komertzial handiak sorrarazi dituzte... horrela, hirien erdialdeen gainbehera ekonomikoan lagunduz”.

“Saltegiak elkartzeko joeraren ondorioz, banatzaileek botere handiagoa hartu dute hornitzaileen aldean, eta banatzaileen marka propioen garapenak asko lagundu du horretan... Merkatua enpresa gutxi batzuen eskutik metatzeak murriztu egiten du kontsumitzaileek produktu, saltoki eta abarren aukeraketan duten eragina...”

Era berean, Merkataritzari buruzko Liburu Berdeak hiri-inguruetan kokatutako saltoki-

gune edo hipermerkatu handien metatze-ereduak ingurumenean duen eragina ere aztertu eta salatu egiten du:

“Kontsumitzaileak hiri-inguruetan edo berdeguneetan kokatutako zentro komertzialetara autoz joateak –orokorrean, hala izaten da eta– ingurumenari jasanarazten dion inpaktuak ondorio kaltegarriak ditu, epe luzera, hirien garapen jasangarrian...”. Eta, horren ostean, honako galdera hau egiten du:

“Nola bateratu daitezke ingurumena babesteko premiak, dendetara ibilgailu pribatuetan joan behar hazkorrak eta ibilgailurik ez duten biztanleen beharrezanek erakusten dituzten interes kontrajarriak?”

Ziurrenik, Europar Batasunak hiri-inguruetako merkatal azalera handien kontra duen jarrera gero eta nabariagoaren erakusgarri onena Europako Batzordeak 1990ean kaleratutako **“Hirietako Ingurumenari buruzko Liburu Berdea”** izenburuko txosten ospetsu eta ezaguna da, txosten hori, zeharka, hipermerkatu eta merkatal azalera handiek osatzen duten merkataritza-eredu metatuarekiko kritikarik sendoena baita.

Gure hirien egoerari eta beraietan indarrean dagoen plangintzari buruzko kritika irmotik abiatuta, hiriguneetan biztanleak eta aisia, lana, merkataritza eta beste arlo

batzuetako jarduera anitz elkartuko dituen erabilera mistoa ahalbidetu beharra da dokumentuak aztertzen duen printzipio nagusia.

Hirietako arazoei eta hirien degradazioaren sorburuei buruz mintzatzean, hauxe aipatzen du, zehazki: *“fenomenoetako bat hiri-inguruetan dauden eta ibilgailuz joan beste aukerarik ematen ez duten merkatal zentro handiak dira... horien erruz, erosketa txikietarako behar dituzten denden aukera gabe geratzen dira hirietako biztanleak”* (3. ep.).

Dokumentu horren arabera, hirietan nozitzen den arazo horrek eta beste batzuek *“gaur egungo hirien antolakuntza eta garapen-ereduak zalantzan jartzera behartuko gaituzte”*.


Helburua hiri multifuntzionala eta bertako erabileren ugaritasuna eta aniztasuna berreskuratzea da. Eta, funtzio horri begira, denda txikiek eta taberneak eskaintzen dituzten bizitasuna eta aberastasuna funtsezkoak dira gure herriak eta hiriak suspertzeko eta biziberritzeko. Aipatutako agiri horrek proposatzen duen bezala *“askotariko hiri multifuntzionalak berreskuratze”*, ezinbestekoa da hirien barruko merkatal eremuak indarberritzea, bai eta hiri-inguruetako hipermerkatuak eta zentro komertzialak ugaritzeko joera –hiriguneak

modu arriskutsuan desertifikatzen ari den joera, hain zuzen– geraraztea ere.

Agiriak behin eta berriz aipatzen du hirietan erabilera anitz nahasi beharra. Horrek zuzen-zuzen jotzen du saltoki-gune handietan oinarrituriko ereduak lurraldea funtzio bakarrean espezializatzearen alde ezartzen duen joeraren kontra, eredu horrek, aitzitik, hirien barruan sakabanaturiko merkatal guneak, janariak saltzeko tokiko azokak eta, oro har, hirietako bizimoduaren aniztasuna aberasten duten janari-denda txiki eta ertainak suntsitu egiten dituelako, pixkanapixkanaka.

Horrez gain, agiri horrek ibilgailu pribatua gero eta gehiago erabiltzearen kontrako kritika gogorra egiten du; horregatik, ildo berean, ibilgailua erabiltzeko motibazioak desagerraraztea, trafikoa murriztea eta *“hiri sortzailea eta multifuntzionala, hau da, gutxien kutsatzen duen eta bizitzeko egokiena den hiria”* berreskuratzea proposatzen du. Saltoki-gune handietan oinarrituriko merkatal eredu horren ugaritzeari buruz, honako hau azpimarratzen du: *“autoak, hiria funtzio bakarreko segmentutan zatikatzearen ondoriozko premia izan beharrean, aukera izan behar du”* (3. ep.).

Dokumentuak egiten duen diagnostikoa zorrotza da erabat: *“behar-beharrezkoa da hirigintzari eutsi dioten printzipioak errotik*



berraztertzea. Erabilera mistoan eta garapen trinkoagoan oinarrituriko estrategiek aukera gehiago ematen dituzte herritarrak lantokietatik eta eguneroko bizimodurako behar dituzten zerbitzuetatik hurbil bizi daitezen. Horrela, autoak premia izateari utzi eta aukera bihurtzen da” (5.1 ep.).

Hiri-inguruetan hipermerkatu eta zentro komertzial handiak eraikitzeke baimena ematen segitzeak Europar Batasunaren helburuen eta gomendioen aurka jotzen du guztiz, batez ere hirigintzari eta lurralde-antolamenduari buruzko politika jasangarri berria taxutzeari dagokionez.

Europako Batzordeko Hiri Ingurumeneko Adituen Taldeak prestatutako **“Europako Hiri Jasangarriak”** izenburuko txostena (Brusela, 1996ko martxoa) ere argigarria da oso:

“Hirien kanporanzko hedapenari merkataritzaren eta enpresen garapen era berriak batu zaizkio. Aurreko hamarkadan, inbertsio handiak egin ziren... hiri-inguruetan eta irisgarritasun handiko lekuetan, txikizkako zentroak ezarri eta ingurune propioak eratzeko... Orain agerian geratzen ari da hirietatik kanpo kokatutako garapen horiek arriskuan jartzen dituztela hirigune tradizionalen bizitasuna eta bideragarritasuna. Estatu kide batzuek –Herbehereak eta Ale-

mania, esaterako– tradizio luzea dute horrelako garapenen kontrako borrokan, eta neurri zorrotzak hartu dituzte haiek mugatzeko, nahiz eta guztiz desagerraraztea lortu ez”.

Txosten horrek honela kritikatzten du janarien salmentan diharduten hipermerkatu handiek erarazten duten sistema:

“Nekazaritzak eta abeltzaintzak janari eraldatuen, paketatuen eta beti eskura daudenen hiri-eskariei begiratzen diete gero eta gehiago. Garraioaren erraztasunari, erregulartasunari eta normalizazioari ematen zaie lehentasuna, elikaduraren, animalien ongizatearen, baliabideak erabiltzeko eraginkortasunaren, aniztasunaren, eskualdeen berezitasunen eta, baita, zapoaren kaltetan”.

Tokiko merkataritza txikiak eskaintzen zituen sasoiko produktu fresko eta ekologikoetan oinarrituriko tokiko nekazaritza eta eskualdeetako produktuak eskaintzen dituen hirietako azoketara itzuli beharra **Europako Toki Gobernuak Hiri eta Herri Jasangarrien aldeko Europako Kanpianan elkarturik antolatutako Aalborg + 10 Konferentzian** (Aalborg 2004) onartu berri zuten printzipioan ere islatzen da. Han, *“lurzoruaren erabilera mistoetan funtsaturiko hirigintza bermatzeko”, “ibilgailu motordunen bidezko garraioarekiko men-*

petasuna murrizteko” eta “ingurumena hondatu gabe, enplegua sustatzen duen toki-ekonomia bizia sortu eta ziurtatzeko” konpromisoa hartu zuten, eta, horretarako, “merkatuak kalitate handiko lurralde- eta toki-produktuetarantz bultzatzea” proposatzen da.

Agian, orain mintzagai dugun honi buruzko txosten edo dokumentu ofizial berriena Europako Batzordearen **“Hirietako Ingurumenari buruzko Gaikako Estrategiarantz”** izenburukoa da (Brusela, 2004/02/11), oraindik zirriborroa besterik ez bada ere. Honela azaltzen du gatazka honen inguruko bere kezka:

“Hirien hedapena lurzoruaren kalifikazioan eta erabilpenean izan diren aldatetek eta hirietatik kanpo taxututako proiektu eta saltoki-gune handiek sustatu duten arazo larri bat da” (27. or.).

“Jarduera ekonomikoa udalen administrazio-mugetatik ateratzeak, gainera, zergen ondoriozko diru-sarrerak murriztu, eta udalek etorkizunean inbertitzeko duten ahalmena oztopatu egiten du” (27. or.).

Eusko Jaurlaritzak “Garapen Jasangariaren aldeko apustua” egiten duela dioerik ere, Euskal Autonomia Erkidegoan, hiri-ereduaren eta merkataritza-ereduaren jasangarritasuna defendatzen duten bi do-

kumentu daude. IHOBek 2003an prestatutako **“Hirien plangintzan aplikatu beharreko jasangarritasun-irizpideak”** izenburuko txostena oso adierazgarria da:

“Hirien plangintza jasangarrian hasiera-hasieratik eduki sozial, ekonomiko eta ekologikoak aintzat hartzen dituen ikusmolde integratzailea Hirien Jasangarritasun kontzeptuari berez datxekion alderdia da”. Horregatik, “auto pribatuarekiko menpetasuna saihesten duten ekipamendu hurbilak” proposatzen ditu, “biztanleen arteko elkarbizitza eta harremanak baliorik handieneko hiri-ondasuntzat hartzeko. Hiria, dagoeneko daukagun hiriaren gainean eraikitzea; joan-etorri luzeen beharra murrizten duten toki-zerbitzu hurbilak; dauden hiriguneak garatzea... berdeguneak edonon eta plangintzarik gabe jarri baino lehen hiri-inguruetako sakabanatzea saihestea (hiri trinkoa); hiriguneetan, ekipamenduak eta zerbitzuak orekaz banatzea, distantzia luzeak egitera behartzen ez duen eta kanpoaldeko kokapenak saihesten dituen hiria lortzeko”. Gomendio horiek guztiak oso zentzuzkoak dira orain mintzagai dugun merkataritza-eredurako.

Baina “hiri-inguruetako saltoki-gune handiak ala hiri eta herrien barruko merkataritza tradizionala” planteatzen duen dilemari zorrotasun handienaz heltzen dion txostena EUDELeK eta IHOBek elkarrekin prestatu



berri duten **“Hirigintza jasangarritasun-irizpideen arabera taxutzeko gidaliburuak”** (2004) izenburukoa da, ziurrenik. Honako hau dio:

- *“Hiri-inguruetan merkataritza-gune berrien ezarpena murrizteko arauak xedatzea”*
- *“Hiri-inguruetan, merkataritzarako edo zerbitzuetarako ekipamendu berrien ezarpena murriztea, hiri-ereduan eta merkatal jardueran duten eraginagatik”*
- *“Hirigintza hirietako merkataritza –hirietako bizigarritasuna eta gizarte-kohesioa lortzeko funtsezko faktorea– indartzeko erabiltzea; eta horretarako:*
 - Merkataritzaren dinamizazioa trafikoa baretzeko, oinezkoen eta txirrindularien erabilera sustatzeko eta espazio publikoa hobetzeko neurriekin integratzea.
 - Auzoetan, zentraltasun berriko eremuak sortzea, merkataritza erakargarritzat erabiliz.
 - Udal-azokak birmoldatzea eta eraberritzea.
 - Garapen berriak planifikatzean, merkatal jarduera kontuan hartzea: merkataritza-ardatzak; erabiltzen ez diren beheko solairuak saihestea...

- Biziberritze integralerako eta birgaitzea sustatzeko politiketan, hiriko merkataritza aintzat hartzea.
- Hiriak eraberritzeko prozesuetan, enplegua, hiriko merkataritza eta abar sustatzeko gizarte-neurriak txertatzea.

Hiri-inguruetan merkatal eremu berriak ezartzearen aurkako kritika argudio sendotan dago oinarriturik:

- *Herrien eta hirien egitura funtzionala txirotzen eta sinplifikatzen laguntzen du, hiri-merkataritza eta hirugarren sektoreko ekipamenduak murriztu eta eragin kaltegarria duelako hiri barruko aisialdia, ostalaritza, zinema eta abarretan.*
- *Komunikazio-nodoen ondoan dauden eta bestelako jardueretarako (biltegiak, merkantzien banaketa eta logistikarako zentroak...) beharrezkoagoak diren lurzoru-azalera urriak xahutu egiten ditu.*
- *Protagonismo handiagoa ematen die espazio pribatuei publikoei baino, gizarte-bazterkeriaren arriskua ahalbidetuz (autorik ez duten kolektiboen irisgarritasun-arazoak...).*
- *Ibilgailu pribatuarekiko menpetasuna sustatzen du, eta sarea gehiagi kargatzen duten trafiko-maila handiegia*



sortzen ditu; inguruabar horiek, bide-lotura eta irtenbide konplexuak eskatzeaz gain, lurzoru eta baliabide gehiegi kontsumitu, funtzionaltasuna eragotzi, eta horrelako eremuak sustatzean kon-tuan hartzen ez diren ezkutuko kostuak sortzen dituzte.

- *Hiri-ingurueta eramaten ditu hirigune historikoetan egin beharreko inbertsioak, eta, horrela, hirigune tradizionalak apurka-apurka hobetzeko aukera oztopatu egiten da*” (108. or.)

Diagnostikoak argi uzten du zein den lurralde honetarako merkataritza-eredu komenigarria. Ildo horretan, 10.3 konpromisoak *“hirigintza hirietako merkataritza indartzen laguntzeko erabiltzea”* proposatzen du. Horren beharra justifikatzeko, hauxe azaltzen du: *“Merkataritza hirietako oinarrizko funtzioetako bat da. Herri eta erosketa-ohituren bilakaera eta hiri-ingurueta kokatutako saltoki-gune handiak ugaritzea erabat eraldatzen ari dira merkataritzaren mapa, eta tentsio nabaria eragiten diote hiri eta herrien barruko merkatal jarduerari, berori atzeranzko dinamika nozitzen ari da eta. Hala eta guztiz ere, hirietako merkataritzak funtsezko eginkizuna du Jasangarritasunaren ikuspuntutik: lana sortzen du, hirietako bizitasuna eta gizarte-harremanak sustatzen ditu, irisgarritasuna bultzatzen du, funtzio ugari eta*

mota askotakoak sortzen laguntzen du... Horrez gain, hirietako merkataritza iraun-erazi eta indartzeak saihestu egiten du hiri-ingurueta merkataritza-ereduak irisgarritasun-arazoak dituzten edo autorik ez daukaten kolektiboak eragiten dizkien gizarte-diskriminazioko arazoak. Aipatutako alderdi horien eraginez, merkataritza handiaren ala txikiaren gaineko eztabaidaren ordez, hiri barruko merkataritzaren ala hiri-ingurueta merkataritzaren komenigarritasuna planteatzen da orain. Agidanez, hirietako merkataritza sistematikoki ahazten da hirigintza planteatzean, eta, itxura guztien araber, hirigileek ez dakite gauza handirik merkataritzarekin zerikusia duten alderdiei buruz”.

Ondorioz, merkataritza tradizionala berebiziko faktorea da hirietako bizigarritasunari, gizarte-kohesioari eta herri zein hirien jasangarritasunari begira; hori dela eta, *“hiri-ingurueta merkatal eremu berrien ezarpena murrizteko arauak xedatzea”* proposatzen da hirigintzako irizpide orokortzat. Horren helburua, azken finean, *“merkataritzako eta hirugarren sektoreko jarduerak eta bizitegi-erabilerekin bateragarriak diren beste jarduera batzuk hiriguneen barruan kokatu daitezen hobestea”* da.

Oraindik behin betiko onartu gabe dagoen dokumentu hori da EAEko merkataritza-ereduari buruz gehien sakontzen eta kon-



promisorik handiena erakusten duena. Dokumentuan egindako diagnostikoa eta proposamenak erabat kontraesankorrak dira merkataritzari buruzko politikaren alderdi askorekiko. Zeharkako irizpideak aintzat ez hartzeak eta jasangarritasun integrean oinarrituriko benetako politikarik ez egoteak bateraezintasun larriak sortzen dituzte Jaurlaritzaren eta Aldundien politikan. EAEko garapen jasangarrirako politikaren orkestran, instrumentu asko daude gozakaizturik.

JANARIAK ETA MERKATARITZA EREDUA, TOKIKO ETA ESKUALDEKO PRODUKTUEN BALIOESPENAREN IKUSPUNTUTIK

Zalantzarik gabe, hiri-inguruetako saltoki-gune handietan oinarrituriko ereduak ondorio nabariak ditu tokiko ekonomian, hirien biziberritze eta gizatiartzean eta ibilgailu pribatuaren erabilpen masiboan. Hala ere, janarien sektorea da gizarte osoarentzat berebizikoak diren ondorio garrantzitsuenak erakusten dituenak.

Behi eroen krisialdia, sukar aftosoa, gure janarietan dauden pestizida, ongarrri, hormona, antibiotiko eta abarrekiko kezka larria... hipermerkatu eta saltoki-gune handien garapena sustatzen duten janari-

enpresa multinazionalen merkaturatze-sistemarentzat oso kezkarriak diren emaitzak hasi dira eragiten.

Horren ondorioz, nekazaritza ekologikoa eta tokian tokiko eta sasoian sasoiko ekoizpen organiko freskoa hasi dira bultzatzen: hormonarik, pestizidarik, kimikarik eta toxikorik gabekoa; garestia eta itsusiagoa, baina osasungarriagoa.

Dagoeneko, Danimarkan eta beste herrialde batzuetan, kontsumo osoaren %40ra heltzen den kontsumo "ekologikoa" edo kontsumo "berdea" deritzona honako arau honetan oinarritzen da: "tokiko ekoizpena, tokiko kontsumoa", horrela merkatu tradizionalentzako, nekazariarentzako eta eskualdeko kulturarentzako onura ekarriz. Elikadura ekologikoak bizi-aniztasuna babesten du, eta, "produktibitateari" baino, osasunari, kultura propioari, inguru naturalari, tokiko merkatuari, hiriko bizimodu adeitsuari, hiri gizatiartuari eta kalitatearekin loturiko nekazaritza familiarrari ematen die lehentasuna. Gainera, lurraldearen orekarentzat ere funtsezkoa da, landa-inguruen degradazio eta desertifikazioa eragozten baititu. Gogoeta horiek guztiek taxutu dute Europako Erkidegoaren Nekazaritza Politika berriak hartu nahi omen duen bidea, orain arte produktibitatean oinarritu dena. Horregatik, gero eta gehiago dira, produktibitatean oinarrituriko nekazaritza



intentsiboaren orde, kalitate handiagoko nekazaritza jasangarri ekologiko eta osungarriagoa aldarrikatzen dutenak. Inguru naturalak eta tokian tokiko kultura tradizionalak hobeto zaintzen dituzten ekoizpen-bideak eta janari osungarriagoak eta kalitate handiagokoak. Ordezko bide horrek nekazari eta abeltzaintzako errenta duina bermatzen duen ustategi familiarren aldeko apustua egitea eskatzen du, bai eta udal-azokak eta hirietako merkataritza tradizionala bultzatzea eta banaketa kooperatiboko sistemak ezartzea ere; alegia: tokian tokiko produktuen kontsumo segurua duintzea. Hori dela eta, ekonomiaren eta osasunaren toki-kontrol handiagoa dakarren protekzionismoa itzultzen ari da nolabait. "Protect the local, globally" da ekoizlea kontsumitzailearengana hurbiltzeko joeraren barruan zabaltzen ari den araua: dirua tokiko esparruan ibiltzea, autosufizientzia handiagoa eta nazioarteko lehiakortasunaren fetitxismoaren aurkako kritika, alegia.

Gero eta ohikoagoa da toki-ekonomiak babesteko eta berreraikitzeke eta, bizi-aniztasunari uko egin gabe, hirietan zehar barreiatutako merkataritza suspertzeko politika eta jarrera publikoak ikustea, aurrerakuntza kontzeptu berriztatu baten barruan. Horixe esan nahi du, hain zuzen ere, "Babestu tokikoa, mundu mailan" esamol-

deak, bizi-aniztasuna eta kultura-aniztasun sortzailea sustatzeko bidetzat.

Janariekin loturik batez ere, tokikoaren eta eskualdekoaren balioespena ere aurkeztzen da, globalizazioaren alderdi osungaitzekin alderaturik. Hiri-inguruetakoko hipermerkatu eta merkatal azalera handiek dakartzaten eragozpen larriez ohartu diren herrialdeetan ikusten den jarrera berriak azalera atera ditu hirien jasangarritasunaren paradigman ageri diren balio eta printzipio berriak.

Horren eraginez, multinazionalen kontroletik at dauden tokiko eta eskualdeko baliabideak hasi dira berriro balioesten, eta, batez ere, sasoiko janari fresko eta hurbilen ekoizpeneko eta kontsumoko subiranotasuna eta produktu horien kontrolean dagoen segurtasuna ari dira aintzat hartzen. Eta horrela, besteak beste, landa-kulturaren bizitasuna eta aniztasuna, eskualdeko nekazaritza eta abeltzaintzako ustategien iraupena, inguru naturalaren eta landa-inguruaren babesa eta hiri ertain eta txikietan oinarritutako giza kokaleku-eredu orekatuago baten bideragarritasuna bultzatzen dira. Hori guztia, ekonomia, gizarte, ingurumen eta kultura arloetako irizpide estrategikoak erabiliz.

Asmoa hurbiltasunaren balioari berriro erreparatzea, tokiko autosufizientzia susta-



tzea, menpetasuna murriztea eta kulturarekin loturiko balioak babestea da, bizi-aniztasunaren onurei uko egin gabe, betiere.

Europako Batzordearen “Europako Hiri Jasangarriak” izenburuko txosten ezagunak (EB, Brusela, 1996ko martxoa) hemen tratatzen ari gareen gairako garrantzi handikoak diren gogoeten bidez salatzen zuen globalizazioaren arriskua:

- *Nazioarteko merkataritza eta ekonomiaren mundializazioa arau bihurtu diren mundu honetan, kulturen homogeneizazioak txirotzea dakar. Egitate horri erantzuteko, gizarte-taldeak toki eta eskualdeetako nortasunak islatzen dituzten produktu kulturalak bilatzen ari dira. Euren sustrai sozial eta kulturalak nabarmendu beharra sentitzen duten pertsonen kopurua hazi egiten da, merkatal harremanek aurrera egin ahala. (248. or.).*
- *Nazioarteko kultura-ereduek tokian tokiko identitate sendoa aldarazteko eta izaera berri anonimo bihurtzeko arriskua dago. (256. or.).*
- *Ezinbestekoa da tokiko kultura eta tradizioak zainduz eta sustatuz bertako identitatea nabarmentzea. (258. or.).*
- *Merkatal erakunde handien berezitasuna den gehiegizko homogeneizazioak*

inolako berezitasunik ez interesik ez duten leku gatzgabeak sortzeko joera dakar... (260. or.).

Aipatutako irizpide guztiak garapen jasangarriaren paradigma berri eta ezinbestekoaren barruan kokatu behar ditugu, baina paradigma hori gauzatu ezina da merkataritza arloko eta bestelako politike-tan aintzat hartzen diren balio bakarrak merkatua eta lehiakortasuna direnean eta kontzeptuok saltoki-gune berriak ipintzeko fetitxe-berbatzat erabiltzen direnean. Erkidegoaren txosten horrek honako hau baieztatzen du amaieran:

“Garapen jasangarria lortzeko bide bakarra jasangarritasuna berariaz planifikatzea da. Merkatuko indarrek eta bat-bateko beste fenomeno inplizitu batzuek ezin dituzte jasangarritasun-arazo larriak zuzendu... Jasangarritasunaren aldeko kudeaketa hiria gobernatzeko moduan eragina duen prozesu politikoa da, batez ere” (8. kap., 17. or.).

HIRI INGURUETAKO SALTOKI-GUNE ETA HIPERMERKATU HANDIEN EREDUAREN ALDERDI KRITIKOAK

Hipermerkatu eta merkatal azalera handiak ekarri dituen merkataritza garapena-



ren ereduak, hiriak suspertzeko politikei buruz aipatu ditugun ondorioei erantsi beharreko bestelako ezaugarri eta eragin eztabaidagarri batzuk ere baditu.

- Eredu horrek urrundu egiten ditu hiriak jasangarritasunetik, hiriko merkataritza tradizionala suntsitzen duelako, eta horrek hiri jasangarrien sustapenaren aurka jotzen du. Ondorioz, auzo eta hiriguneetako segurtasun-gabezia areagotu egiten da.
- Ibilgailu pribatuen erabilera, trafikoa eta sakabanaketa areagotu egiten ditu eta, horren eraginez, kutsadura handiagoa sortzen da. Ibilgailu pribatuarekiko menpetasun gero eta handiagoa.
- Ibilgailu pribatuaren erabilpena sustatzen duten komunikazio-azpiegituren zabalkundea eragiten du, bai eta hiri-inguruetakoa berdegune irekietako gehiegizko okupazioa ere.
- Hiriguneak apurka-apurka desertifikatzea eta auzoetako elkarbizitzaren aberastasuna hondatzea eragiten du, hiriko bizi-modu askotarikoa eta multifuntzionala aberasten duten denda txiki eta ertainak desagerraraztean. Kaleak herritarren eta giza harremanen topaleku izateari uzten dio. Dendak dauden lekuan, bizitasuna dago.

- Kaltegarria da errentarik txikienak eta bizi-maila baxua dituzten sektoreentzat, bereziki ibilgailu pribaturik ez dutenentzat, hala nola adineko pertsonak eta gazteak. Ondorioz, gizarte-talde horiek ordaindu behar dituzte preziorik garestienak produktuen truke.

- Pixkana-pixkanaka, denda txiki independenteak desagerrarazi egiten ditu, eta, horrela, eskualdeko janari-ekoizle txikien banaketa-bideak blokeatu egiten dira. Horrela, monopolioak sustatu eta tokiko ekoizpena, banaketa eta nekazaritza familiarra suntsitu egiten ditu.

Txikizkako salmentaren monopolioak ustiatu egiten ditu janari-ekoizleak, eta, astiro-astiro, ito egiten ditu tokiko nekazaritza eta abeltzaintza. Tokiko eta sasoiko produktuak, fruta eta barazki freskoak eta abar desagerrarazi egiten ditu. Horren eraginez, bertako nekazaritza apurka-apurka suntsitu eta landa-inguruko lanpostuak galdu egiten dira; era berean, merkataritza-eredu hori ezartzen den eskualdeetako kultura-ezaugarri errotuenak ere desagertu egiten dira. Ekoizpenaren eta banaketaren baldintzak janari-enpresa handiek ezartzen dituzte, eta ahitzeraino estutzen dituzte nekazaritza eta abeltzaintza sektoreko ekoizleak. Hortaz, landa-eremuetako identitatea galdu, inguruok deser-



tifikatu eta, horren ondorioz ere, janariaren kalitatearekin loturiko segurtasun-gabezia sortzen da.

Merkataritza-sistema horrek, epe ertainera, kaltetu egiten du janariaren aniztasun genetikoa; beraz, gero eta espeziebarietate gutxiago daude, ondorio iragarri ezinak ekarriko dituen "monokultura genetikora" garamatzaten jardunbideak ezartzeagatik.

- Saltoki-gune handiak ezartzen diren eskualdeetan sortzen duten lan finkoaren ia bikoitza suntsitzen dute, behin-behineko enplegua zabaltzen laguntzeaz gain (soldata urriak, aldi baterako lana...).

Britainia Handian, Ekonomia Berria Fundazioak 1998an egindako kalkuluen arabera, termino erlatiboetan, tokiko denda txikietan gastatutako 50 liberako, lanpostu bat sortzen zelarik, zentro komertzial handietan 250 libera gastatu behar ziren lanpostu berri bat sortzeko (The Ecologist, 2004).

Estatuko Merkataritza Ganberen Kontseiluak berak salatu du merkataritza metatzeko joerak ondorio kaltegarriak dituela enpleguarentzat. 2.500 m²-tik gorako saltegiak denda txikiek baino %66 enplegu gutxiago behar dituzte saltzen duten unitate bakoitzeko, eta,

gainera, aldi baterako lana sustatzen dute. Bestalde, jaiegunetan ere irekitzeko, merkataritza azalera handiek nahi duten bezala, oso eragin kaltegarria izango du merkataritza sektoreko enpleguaren kantitatean eta kalitatean (Ikus Ignacio Cruz Roche eta Alfonso Rebollo Arévalo, 2000).

- Eredua horretako ekoizpen zentralizatuak itzultzen ez diren ontzi eta bilgarrietan oinarriturik dagoen eta ekologiarekin ikuspuntutik batere gomendagarria ez den politika bultzatzen du. Hondakin gehiago sortzen ditu eta ez du birziklapenean laguntzen.
- Merkataritza-eredua horrek darabilen merkataritza politikak merkatua berdintzera jotzen du, tokiko gustuak eta lehentasunak kontuan izan gabe, eta horrela, eskualdeetako komunitateen deserrotzea eta kulturagabetzea eragiten ditu epe ertainera, guztiek ohitura berdintzaileak bereganatuta. Horrek ondorio ezin kaltegarriagoak dakarzikio tokiko eta eskualdeko nekazaritza eta abeltzaintzako aniztasunari, azkenean desagertu egiten da eta. Bestalde, saltoki-gune handiek galarazi egiten dituzte merkataritza tradizional txikian ohikoak diren giza harreman pertsonalizatuak. Gizarte zibilak eta instituzioek berariaz babestu ezean, tokiko nekazaritza eta

abeltzaintzako produktuetan eta bertako artisautzan oinarrituriko eskualdeazokak arrisku larrian daude. Nola babestu? Tokian tokiko eta eskala txiki-eko ekoizpen-egitura tradizionalak bultzatuz; zuzeneko, hau da, tartekaririk gabeko salerosketa-zirkuituak sustatuz; hiriguneetan dauden udal-azoken aldeko apustua eginez; baserriko produktuen truke bidezko prezioa ordainduz, tokiko landa-ingurua bizirik mantendu ahal izateko; tokiko nekazaritzako janari enpresa txiki eta ertainak itotzen dituzten banatzaile handiak eta monolaborantza monopolista baztertuz, besteak beste.

- Azkenean nortasunaren edo berezitasunen galera dakarren berdintze- eta homogeneizazio-prozesua eragiten du. Kulturen, gustuen, beharren eta lehenetasunen homogeneizazioak gizarte ahulagoak eta zaugarriagoak eraten ditu, hau da, kontrol demokratikotik kanpo dauden gizarteak eta multinazionalen gustukoak, hain zuzen ere.

Berez, hipermerkatu eta saltoki-guneetan oinarrituriko metatze-eredu horri buruz aipatutako ezaugarri eta berezitasunak ez dira berdinak Europako eskualde guztietan. Hala ere, Ingalaterra, Frantzia, Belgika, Italia, Holanda eta beste batzuk agintaritzaren zentralen eta eskualde-mailakoen kontrol

eta esku-hartze prozesu gero eta zorrotza-
goak eta murriztaileagoak hasi dira dagoeneko xedatzen, azalera handiak ezartzeko baimenei dagokienez. Administrazio arloetan, mugak ezartzen zaizkio merkatal hedapenari; legeria gero eta gogorragoa da merkataritza-sektorearen metaketa eta monopolioarekiko; lurraldea antolatze-
tresnen bitartez, merkatal azalera handien ezarpenarekiko gero eta murriztaileagoak diren neurriak xedatzen dira...

1994ko martxoan, Ingalaterran, orduko Ingurumeneko Estatu Idazkaria zen John Gummer-ek iragarri zuenez, hirigintzako arau berriek (guidelines deritzenek) nabarmenki murriztuko zuten hiri-inguru-
etako saltoki-guneen eraikuntza, ingurumenari eta gizarteari kalte egiten zitelako. John Gummerrek azaldu zituen argudioen artean, horrelako zentroak ibilgailu pribatuaren menpeko gizartea eraten ari zirela aipatu zuen (T. Lang and H. Raven, 1994).

Beraz, dagoeneko, gure lurraldean merkatal azalera eta hipermerkatu handiak ugartu daitezkeen baimentzearen komenigarritasuna benetan eta premiaz aztertze-
ko unea iritsi da. Hori ez egitea etorkizuneko belaunaldiei herentzia astuna utziko liekeen akats larria litzateke. Garapen jasagarriak gure bizimoduari eusten dioten ekoizpen-
eta kontsumo-ereduan goitik beherako aldaketak eskatzen dituena iritzi orokorra



da jadanik. Saltoki-gune handiek, erosketak eta aisialdia bateratzen dituen kontsumo irrazional eta konpulsiboa sustatzeko euren politikaren bitartez, areagotu egiten dute “kontsumismoaren” kaltegarritasuna, kontsumo-eredua aldatzeko ezinbesteko premia oztopatu eta gure garapenaren jasangarritasunik eza larriagotzen duelarik (Ikus Tim Lang and Hugh Raven, 1994). Eredu horrek gure herri eta hirien degradazioan eta bizitasunaren galeran duen eragina kezka orokorra da Europa osoan.

Saltoki-gune edo hipermerkatu handiak biztanleria oso sakabanaturik dagoen edo oso populazio-dentsitate txikia duten lurral-

deetan bakarrik justifikatu daiteke, edo urtaroaren arabera, populazio-gorabehera handiak dituztenetan (turismo-eremuetan uda garaian gertatzen dena, esaterako). Bi kasu horiek ez datoz bat Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako errealitatearekin. Beraz, gure hiri-inguruetako hipermerkatu eta merkatal azalera handiak eta hiri zein metropolien barruko merkataritzagune handiak ugaritzea baimentzen duen politika baimenkorregia premiaz berraztertzea litzateke zentzuzkoena.

JOSE ALLENDE

*Hiri eta Eskualde Plangintzako
Katedraduna*

